

SARRERA



Gaur egun, kosmetika gure gizartean ezagutu diren gai iraultzaileenetako bat da. Ongi dakigunez, produktu hauek ekoizteko, ekosistemarentzat zein gure osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen material kimikoak erabiltzen dituzte. Hain dira hain kezkarriak dauzkaten substantzia kimikoak, non gure inguruan sor ditzaketen ondorio larriak iada ikustera eman diren.

Gainera, orain identifikatu ahal izan dugun arazoetako bat, ingurumena nahiz animalien eskubideak errespetatzen dituzten kosmetiko naturalen gabezia da, bai ekoizpenean bai testatzeko fasean ere. Izan ere, ez baita batere harrigarria beren produktuak animalietan probatzen dituzten enpresa ugari aurkitzea.

Hain zuzen ere, herritarrek gero eta kontzientzia handiagoa dute prozesu mota horietan gertatzen diren krudelkeriez, ondorioz, animalien eskubideak bermatzen eta errespetatzen dituzten produktuak kontsumitzea erabakitzen dute. Jakina, egoera horrek kosmetikoen munduan beganismoaren jarraitzaileetan sekulako hazkundera sorraraztea eragin du.

Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu arazo handi honi irtenbide bat ematea. Gure kasuan, iruditu zitzaigun gauzarik egokiena eta zuhurrena "cruelty-free" enpresa begano eta jasangarria sortzea dela, mota horretako kontsumitzaileen eskaera asetzeko.